

"EGUNARO EGUNARO KALIEN"

Musika: Xabi Aburruzaga

Hitzak: Iñaki Aurrekoetxea

Sarrera

Laminen puntetik zuzenien
giruek berbiztu dauenien
mahoie jantzitze gonapien
Lameran sartu da jente artien

1

Irrintzi artien hor Xixili
kendu dau galbanie
zapidxe imini
jai itsosuen jai baserridxen
egunaro egunaro kalien

2

Gaztelugatxeko Doniene
bedeinkatu gagizula
lehorrien be
bermiotarra lagun artien
egunaro egunaro kalien3

3

Itsosue, lurre ta harridxe
Bermion topa lekizu
Euskal Herridxe
herri aske ta euskaldunien
egunaro egunaro kalien

*Atrakaizu txo batela!
portuen dala martxie
gaur libre dozu galtzie
Xixili topako zu
Andramaidxetan!*

4

Izaro zaindari maitagarri
itsotxoridxe dinotsu
hamengo barri
neki en zantzurik ez dani en
egunaro egunaro kalien

5

Non ete Demiku, non Almike?
eguzkidxe Ogoñotik
dabil kikuke
gaur bai Urdaibai! gu bittartien
egunaro egunaro kalien

*Atrakaizu txo batela!
portuen dala martxie
gaur libre dozu galtzie
Xixili topako zu
Andramaidxetan!*

Alabatxi! Arrainek be etxerako ordue
dako iela!

Zer dinostazu! On trankil, Xixiligaz
jungo nai-eta!

Atrakaizu txo batela!... (bir)

